**2016KO MAIATZAREN 16AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.**

Ozaetan, Barrundiako udaletxeko bilkura aretoan, 2016ko maiatzaren 16an, 14:00ak direnean, ondoren aipatzen direnak bildu dira lehenengo deialdian, Afro Olabe Martinez de Albeniz Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta Jon Txopitea Zugadi Idazkari Kontuhartzailearen laguntzarekin.

BERTARATUTAKO KIDEAK

Lehendakaria: Afro Olabe Martínez de Albeniz jauna.

Ainara Saez de Ocariz Albizu andrea.

Gorka Blanco Mata jauna.

Maria Jesus Gomez Pascual andrea.

Idazkaria: Jon Txopitea Zugadi.

Quorum nahikoa dagoela egiaztatu ondoren, Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari eta Aztergaien Zerrendan agertzen diren gaiak jorratzeari ekin zaio:

**1.- 2016KO MARTXOAREN 23KO AKTA ONARTZEA.**

Osoko Bilkurak 2016ko martxoaren 23an egindako batzarraren aktaren zirriborroa aurkezten da.

Udalbatzak akta aho batez onartzen du.

**2.- OZAETAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEAK ESKATUTAKO LURSAILEN TRUKAKETAREN BERRESPENA.**

IKUSIRIK: Ozaetako Administrazio

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO-PLENO EL 16 DE MAYO DE 2016.**

En Ozaeta, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Barrundia, siendo las 14:00 horas del día 16 de mayo de 2016 se reúnen, en primera convocatoria, los miembros que a continuación se indican bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Afro Olabe Martínez de Albéniz, y asistidos del Secretario-Interventor municipal, D.Jon Txopitea Zugadi.

MIEMBROS ASISTENTES

Presidente: D. Afro Olabe Martínez de Albéniz.

Dª. Ainara Saez de Ocariz Albizu.

D. Gorka Blanco Mata.

Dª. Maria Jesus Gomez Pascual.

Secretario: Jon Txopitea Zugadi.

Comprobada la existencia de quórum suficiente al efecto el Sr. Presidente declara abierta la sesión, procediéndose el análisis de cada uno de los puntos que integran el Orden del Día:

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE 23 DE MARZO DE 2016.**

Se presenta el borrador del acta de la sesión celebrada por el Ayuntamiento-Pleno el 23 de marzo de 2016.

El Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda aprobar el acta.

**2.- RATIFICACIÓN DE LA PERMUTA DE FINCAS SOLICITADA POR LA JUNTA ADMINISTRATIVA DE OZAETA.**

VISTO: Que la Junta Administrativa

Batzarrak, 2016ko martxoaren 20an egindako batzarrean, Batzorde horren jabetzapekoa den Barrundiako 1. poligonoko 781 lursaila (Erregistroko inskripzioa: Lursaila: 6433; Liburukia: 2431; Liburua: 64) Carmen Uriarte Uriarte andrearen jabetzapekoa den 1.poligonoko 778. lursailarekin (Erregistroko inskripzioa: Lursaila: 6314; Liburukia: 2229; Liburua: 63) trukatzea erabaki zuen, betiere herri berberako uren arazketarako era berri baten garapena ahalmentzeko.

KONTUAN HARTUZ: Trukaketak Ozaetako Administrazio Batzordeak duen beharrizanean oinarritzen dela. Horren zioa zera izanik: Ebro Ur Konfederakundearen aginduak betetzeko, herriko arazketa sistema berri bat ezartzeko.

IKUSIRIK: 2016ko urtarrilaren 26ko udaleko arkitektoak burututako txostena.

KONTUAN HARTUZ: Toki errejimenean indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratuak bere 41. artikuluko 2. ahopaldian xedatutakoarekin bat, desjabetzei eta maileguen eragiketei eta ondasunei buruzko Batzordearen erabakiak dagokion Udalak berretsi beharko ditu.

Udalbatzak, aho batez, zera erabakitzen du:

LEHENA.- Erabaki honen aurrekarietan xedatutako trukaketa berrestea.

BIGARRENA.- Honako erabaki hau Ozaetako Administrazio Batzari eta

de Ozaeta, en sesión celebrada en fecha 20 de marzo de 2016, acordó permutar la parcela catastral 781 del polígono 1 de Barrundia (inscripción registral: Finca: 6433; Tomo: 2431; Libro: 64), titularidad de la Junta Administrativa de Ozaeta, con la parcela catastral 778 del polígono 1 de Barrundia (Finca: 6314; Tomo: 2229; Libro: 63), titularidad de doña Carmen Uriarte Uriarte al objeto de posibilitar el desarrollo de un nuevo sistema de saneamiento de las aguas de la propia localidad.

CONSIDERANDO: Que la permuta se justifica en la necesidad de la Junta Administrativa de Ozaeta de obtener los terrenos para llevar a cabo las obras referentes al nuevo sistema de saneamiento de la localidad, y con ello, cumplir las exigencias de la Confederación Hidrográfica del Ebro.

VISTO: El informe elaborado por el arquitecto municipal de fecha 26 de enero de 2016.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el párrafo 2 del art. 41 del Texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen local, los acuerdos de la Junta sobre disposiciones de bienes y operaciones de crédito y expropiación forzosa deberán ser ratificados por el Ayuntamiento respectivo.

El Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda:

PRIMERO.- Ratificar la permuta descrita en los antecedentes de esta resolución.

SEGUNDO.- Notificar la presente resolución a la Junta Administrativa de

udaleko arkitektoari jakinaraztea.

**3.- BANDERAREN AUZIA: 79/2016 EPAIAREN BERRI EMATEA.**

IKUSITA: EAEko Gobernu Ordezkaritzak 21/2012 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuela Udal honen kontra, urriaren 28ko 39/1981 Legea, bandera nazionalaren erabilera arautzen duena, urratzeagatik.

AINTZAT HARTU DA: Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 2. Epaitegiak, maiatzaren 22ko 102/2012 epai bidez, Barrundiako Udala kondenatu zuela Espainiako bandera nazionala Udaletxearen kanpoaldean behin betiko ezartzera.

AINTZAT HARTU DA: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak, martxoaren 25eko 183/2013 epai bidez, gaitzetsi egin zuela Barrundiako Udalak Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 2. Epaitegiaren 2012ko maiatzaren 22ko epaiaren kontra aurkeztutako apelazio-errekurtsoa.

AINTZAT HARTU DA: Gasteizko Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesalak (arlo zibila, soziala, administrazioarekiko auziak) martxoaren 25eko 46/2015 Auto bidez erabaki zuela, alde batetik, 2012ko maiatzaren 22ko epaia derrigorrez betearaztea eta, bestetik, Barrundiako Udalari eskatzea Espainiako bandera nazionala jar dezala 46/2015 ebazpenaren terminoen arabera.

AINTZAT HARTU DA:

Ozaeta y al arquitecto municipal.

**3.- RECURSO BANDERA: DACIÓN DE CUENTA DE LA SENTENCIA 79/2016.**

VISTO: Que la Delegación del Gobierno en la CAV interpuso recurso contencioso-administrativo nº 21/2012 contra este Ayuntamiento por incumplimiento de la Ley 39/1981, de 28 de octubre, reguladora del uso de la bandera nacional.

ATENDIDO: Que el Juzgado de lo Contencioso-administrativo nº 2 de Gasteiz, mediante sentencia 102/2012, de 22 de mayo, condenó al Ayuntamiento de Barrundia a colocar de forma permanente la bandera nacional española en el exterior de la Casa Consistorial.

ATENDIDO: Que la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, mediante sentencia 183/2013, de 25 de marzo, desestimó el recurso de apelación interpuesto por el Ayuntamiento de Barrundia contra la sentencia del Juzgado de lo Contencioso-administrativo nº 2 de Gasteiz de 22 de mayo de 2012.

ATENDIDO: Que el Servicio Común procesal de ejecución civil-social-contencioso administrativo de Gasteiz, mediante Auto 46/2015, de 25 de marzo, acordó la ejecución forzosa de la sentencia de 22 de mayo de 2012, acordando requerir al Ayuntamiento de Barrundia a fin de reubicar la bandera nacional española en un lugar acomodado a los términos de la propia resolución 46/2015.

ATENDIDO: Que el Juzgado de lo Contencioso-administrativo nº 2 de

Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 2. Epaitegiak, irailaren 25eko 128/2015 Auto bidez, 2012ko maiatzaren 22an emandako epaia betetzat jo duela.

AINTZAT HARTU DA: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak, martxoaren 4ko 79/2016 epai bidez, onetsi egin duela Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 2. Epaitegiaren 2015eko irailaren 25eko Autoaren kontra Estatuko Administrazioak aurkeztutako apelazio-errekurtsoa (exekuzio pieza: 7/2015, 21/2012 prozedura arruntarena). Halaber, ebazpena baliogabetuta, prozedura horren ekintzei berrekiteko agindu dio Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, epai betearazlea betetzeko beharrezko praktikak egikarituz.

Udalbatza jakitun da.

**4.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkate-Udalburuaren honako erabakien berri ematen da:

.- 2015eko 484. zenbakiko Dekretua.

.- 98 / 186 zenbakiko Dekretuak.

.- 188 / 190 zenbakiko Dekretuak.

Udalbatza jakitun da.

**5.- GALDERAK ETA ERREGUAK.**

**GALDERAK:**

1.- Zergatik ez dira jaso osoko bilkurarako deialdi honetan gure talde politikoak maiatzaren 5eko sarrera-

Gasteiz, mediante Auto 128/2015, de 25 de septiembre, tiene por ejecutada la sentencia dictada en fecha 22 de mayo de 2012.

ATENDIDO: Que la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, mediante sentencia 79/2016, de 4 de marzo, estima el recurso de apelación interpuesto por la Administración del Estado contra el Auto dictado con fecha 25 de septiembre de 2015 por el Juzgado de lo Contencioso-administrativo nº 2 de Gasteiz (pieza de ejecución: 7/2015 del procedimiento ordinario 21/2012) y con revocación de esa resolución, ordena a dicho Juzgado de lo Contencioso-administrativo a reanudar las actuaciones de dicho procedimiento con la práctica de las necesarias para dar cumplimiento a la ejecutoria.

El Ayuntamiento-Pleno se da por enterado.

**4.- DACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones de Alcaldía siguientes:

.-Decreto nº 484 de 2015.

.- Decretos números: 98 / 186

.- Decretos números 188 / 190.

El Ayuntamiento-Pleno se da por enterado.

**5.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

**PREGUNTAS:**

1.- ¿Por qué no se han incluido para la presente convocatoria a pleno las peticiones que nuestro grupo político

datarekin eginiko eskariak, hau da, aurrekontuen gaia, liburuzainaren kontratazioaren luzapena eta Maturako errekurtsoaren azalpena?.

solicitó con fecha de entrada de 5 de mayo, es decir, el tema de los presupuestos, la prórroga de la contratación de la bibliotecaria y la aclaración del recurso de Maturana?.

Alkate-Presidenteak esan du 2016 ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak laster barru aurkeztuko direla, eta atzerapenaren arrazoia dela Udalak hirigintza-arloan lan-karga handia duela 2015eko azaroaren bukaeratik.

Toma la palabra el Alcalde-Presidente para señalar que los Presupuestos Generales del ejercicio 2016 serán presentados en breve, y la demora en la presentación deviene de la carga de trabajo en el campo del urbanismo soportado por el Ayuntamiento desde finales de noviembre de 2015.

Liburutegi-zerbitzuaren kontratazioari dagokionez, adierazi du zerbitzu hori 2016ko maiatzaren 13ko 195. Alkatetza-dekretu bidez esleitu zela.

En cuanto a la contratación del servicio de biblioteca, señala que se ha adjudicado dicha prestación por resolución de Alcaldía nº 195 de 13 de mayo de 2016.

2.- Zergatik argitaratu zen udal-aldizkarian aurrekontuekin lotutako berri bat, esanez Aste Santu aurretik onartuko zirela, gure taldeak oraindik ez baldin badu izan aukerarik ezta zirriborroari ere begirada bat emateko eta urtearen erdialdean gure Udala aurrekonturik gabe baldin badabil?.

2.- ¿Por qué se publicó en la revista municipal una noticia relacionada con los presupuestos, diciendo que se iban a aprobar antes de Semana Santa y hoy es el día que nuestro grupo todavía no ha tenido opción de echar un vistazo ni tan siquiera al borrador y a mitad de año todavía nuestro Ayuntamiento funciona sin presupuestos?.

Alkate-Presidenteak lehen galderan garaturiko argudioak errepikatu ditu, eta erantsi du gero eta zailagoa dela legegintzako aldaketetatik eta erakundeetan, gehienbat Estatuko Administrazio Orokorrean, oinarritutako eskakizunetatik eratorritako prozedurak garatzea.

El Alcalde-Presidente repite el argumentario desarrollado en la primera pregunta, añadiendo la progresiva dificultad de desarrollar los procedimientos derivados de los cambios legislativos y de las exigencias fundamentadas en los diversos entes, fundamentalmente, la Administración General del Estado.

3.- Zergatik ez zitzaigun jakinarazi, udalerrian eginiko beste jarduera batzuen artean, emakumeen lasterketa, zehazki? Eta zergatik eskatu zitzaigun, azken unean, gure laguntza?.

3.- ¿Cuál es la razón por la que no se nos informó entre otras actividades realizadas en el municipio, a mencionar concretamente, la carrera de féminas, y en el último momento se

nos pide nuestra colaboración?.

Alkate-Presidenteak azaldu du Barrundiako Udalak ez duela inolako zerikusirik udal-barrutian garatzen den emakumeen txirrindularitza-probarekin. Proba hori Arabarrak kirol-elkarteak antolatzen du bere kabuz; Barrundiako Udalak diruz lagundu baino ez du egiten.

El Alcalde-Presidente expone que el Ayuntamiento de Barrundia no tiene nada que ver con la organización de la prueba ciclista de mujeres que se desarrolla en el término municipal. Dicha prueba se desarrolla bajo la organización exclusiva de la asociación deportiva Arabarrak; el Ayuntamiento de Barrundia únicamente subvenciona dicha prueba.

4.- Zergatik jarraitzen duzue aurtengo dekretuak altxortegiko soberakinarekin onartzen, ustez ezin denean hori egin eta are gutxiago 2016rako Aurrekontuak onartu gabe daudenean?.

4-. ¿Por qué continuáis aprobando los decretos de este año con el remanente de Tesorería cuando se supone que no se debe y menos cuando los Presupuestos para el 2016 están sin aprobar?.

Udaleko fede-emaileak azaldu du ez dela euro bat bera ere gastatu 2015 ekitaldiko Altxortegiko Soberakinetik; une honetan, 2015 ekitaldiko Aurrekontu Orokor luzatuekin lan egiten ari da.

Toma la palabra el fedatario municipal para señalar que no se ha gastado un euro del Remanente de Tesorería del ejercicio 2015, en estos momentos se está trabajando con los Presupuestos Generales prorrogados del ejercicio 2015.

**ESKEAK:**

1.- Eskaera egiten dugu EAJko zinegotziek osoko bilkuretan egiten dituzten hitz-hartzeak behar bezala eta hitzez hitz jaso daitezen aktetan.

Udaleko fede-emaileak adierazi du tokiko legeriak dioela hitz-hartzeak "labur" jaso behar direla.

2.- Era berean, eskaera egiten dugu onartzeko ditugun aktak, 2015eko azaroaren 6koa, azaroaren 23koa eta abenduaren 30ekoa, kasu, ahal bezain laster igor dakizkigun.

3.- Bestetik, gogoratu nahi dugu, zerbait ez baldin bada Osoko Bilkuran

**RUEGOS:**

1.- Solicitamos que las intervenciones que realizan en los plenos los y las concejalas de EAJ-PNV, sean recogidas debidamente y de forma literal en las actas.

Toma la palabra el fedatario municipal para señalar que la legislación de régimen local habla de recoger las intervenciones "sucintamente".

2.- Asimismo, rogamos que las actas que tenemos sin aprobar, a mencionar, la del 6 de noviembre, la del 23 de noviembre y la del 30 de diciembre del 2015, se nos remitan a la mayor celeridad posible.

3.- Por otro lado, recordar que si algo no ha pasado por Pleno, no se puede

eztabaidatu, ezin dela eskegi webgunean.

Alkate-Presidenteak adierazi du inoiz ez dela egin halakorik, ez baldin bada izan koordinazio-akatsen batengatik.

4.- EAJk Euskararen Nazioarteko Egunaren haria 2015eko abenduan aurkeztutako mozioa jasotzea.

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, 15.15ak direnean bilkurari amaiera eman diogu, eta nik, Idazkariak, horren fede ematen dut.

colgar en la página web.

El Alcalde-Presidente señala que jamás se ha realizado esa práctica, a no ser que haya un fallo de coordinación.

4.- Incluir la moción que EAJ-PNV presentó en diciembre del 2015 con motivo del Día Internacional del Euskera.

Y no habiendo más asuntos que tratar se levanta la sesión a las 15.15 horas, de lo cual yo, como Secretario, doy fe.-

Alkate-Udalburua/El Alcalde-Presidente

Afro Olabe Mtnez de Albeniz

Idazkaria / El Secretario

Jon Txopitea Zugadi